

# Noaua!

H A M A B O S K A R A

2001eko maiatzaren 18a VI. urtea

Usurbil, 113. zenbakia

**Azken jeitsierak  
nartzeko prest**



# UDALEKO IRAGARKIA

## HILERRI BERRIAN DANTE- DIAK HARTZEKO



Lurrazpiko hilobiren bat eskuratzeko asmoa duten herritarrek, ekainaren 18a arteko epea dute eskaera aurkezteko. Eskaerak orriak udaletxean eskura daitezke. Eskatzen den hilobi bakoitzeko 7.000 pta.ko bermea jarri beharko da. Hilobiak 50 urteetarako utziko dira eta bakoitzagatik 309.000 pezeta ordaindu beharko dira.




### HILERRI BERRIAREN INAUGURAZIOA

Maiatzak 19, larunbata,  
eguerdiko 12.30etan



## TXIMINIA ALTZARIAK



Poligono Osinalde  
USURBIL (Gipuzkoa)  
Tfno.: 943 37 09 66 - Fax: 943 37 29 32

## ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Alzari-trinko, lastaira eta lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

## Txerrimunik ordainetan



Aupa txikiya! Ezagutuko zarelaokoa zorionak maiatzaren 17ko partez. Familia.



Aupa kirolaril! Ea hil honen 31n elkarrekin egoten garen belarri horiek berotzeko. Lagunak.



Maiatzaren 16a pasa berria da. Ziur ondo igaro duzula egun hori. Jarrai horrela! Familia.



Zorionak **Josune!** Maiatzaren 7an izan zen zure 23. urtebetetze eguna. Berandu xamar bada ere muxu haundi bat familia guztia partez.



Zorionak **Iker!** Maiatzaren 30ean 10 urte beteko dituzunez ondo pasa eta jarraitu horrela pelotan jolasten. Etxekoak.



Zorionak **Imanol eta Leire!** Maiatzaren 19an eta 25ean zuen urtebetetze eguna izango denez muxu haundi bat. Etxekoak.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: ekainak 1  
Ekartzeko azken eguna: maiatzak 25

## Jaiotzak

**Gorka Aizpurua**  
Iruretagoiena  
2001-03-22  
Muna lurra

**Alyr Rodriguez**  
Loyola  
2001-04-04  
Txikierdi

**Arantxa Orbegozo**  
Sararua  
2001-04-13  
Zubieta

**Peru Aranburu**  
Leiva  
2001-04-15  
Zubieta

**Alazne Irazabalbeitia**  
Fariña  
2001-04-21  
Muna Lurra

**Iñigo Arzalluz**  
Sagardia  
2001-04-29  
Kaleberri

**Andoni Arzalluz**  
Sagardia  
2001-04-29  
Kaleberri



**Bai, esan?**

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi gettokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzaintza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 112
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarteak 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

**Eusko Tren-en neguko tren ordutegia**

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.17	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.17	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

**Ekaina**

Astel.	Astear.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

**Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartearen badabilkizu edo eta herriko zerbaitez hitz egin nahi baduzu guk ikamikan foki bat egin-go dizuegu.**

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

**Maketazioa eta diseinua**

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Merxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

**Azala:**  
Frontoi atzean dagoen  
parkeko txirristra

# Zer irizten?



## Mass medien hauteskundeak

### Garikoitz Udabe

#### Kazetaria

**P**asa da ditxosozko maiatzaren 13 a. Etorritako bidetik joan dira hauteskundeak: "beldurraren" hauteskundeak, "askatasunarenak", "burujabetza-arenak", "aldaketarenak", "pluraltasunarenak", "milurte berriko lehen-dabizikoak",... oso modu ezberdinean izendatu dira hauteskunde hauek. Hauetaz guztietatik bat gehituko nieke: "programarik gabeko hauteskundeak". Zeintzuk izan dira alderdiek kultur, ingurugiroan, turismoan, hirigintzan, ekonomian, osasun alorrean egin dituzten proposamen politikokoak? Bejondeizula hau guztiaren berri izan baduzu kanpainan!

Hau guztiaz gain ordea, 2001ekoak, "Masa Komunikabideen" hauteskundeak izan dira". Agerikoa da hauek duten bote-rea. Ez dut uste gauza berririk esaten dudarik horrekin. Eta "politiko jendearentzat" ezinbesteko tresna dira hauek. Iritzi publikoarengana zuzen, azkar eta nahi bezala iristeko modurik eraginkorra bilakatu dira. Hauteskunde garaian zer esanik ez.

Interes handiarekin heldu diote oraingo honetan ere gaiari komunikabideek. (Hartu kontuan bestela zenbat informatibo minutu bete diren gaiarekin) Hilabete askoko aurrekanpaina izan da. Eta atzetik kanpaina bera etorri da. Euskal Herrian bizi dugun egoeraren testigu izan diren kazetarien erreportaiak, gizartearen alde jakin baten testigantza (hau ez da ba objektibo izatea), euskaldunak inork baino hobeto ezagutzen gaituztenen kontakizunak, tertuliekide orjakileen hausnarketa eta bizipenak ahaztu gabe noski!

Komunikabide batzuk, (batez ere Madrilan egoitza dutenak), zikin aritu dira. Hauteskunde hauek, alderdikerian erorita, inongo diximulorik gabe, balantza komeni zaien aldera eraman dute. Adibiderik gertukoena hauteskunde gauekoa dugu: zeuzkaten baliabide guztiak hartuta etorri ziren igande gauean saio bereziak egiteko asmoarekin makina bat telebista Euskal Herrira. Gaua hasi eta segituan joan ziren ordea haien gidoiak pikutara. Espero zituzten datuak, inkestek emandako zenbakiak, ez zetozen errealitatearekin bat. Horregatik erabaki ote zuten telebista kate hauek, inoiz baino lehenago "desde Bilbao, buenas noches" esatea? 3 zenbakia daraman katea ez zen botuen ehuneko ehuna zenbatzera iritsi. Nahiago izan zuten, hauteskunde-etako emaitzak alde batera utzi eta lau pezetako filme batekin pantaila orduak betetzea. Gau garestia atera zitzaion telefonikari halajaina!

Hauteskunde emaitzek, eragina izan zuten gau horretako programazioan. Eta arrazoiak bistakoa da: zenbait komunikabidek, inoiz baino gehiago, kazetaritzako deontologia hankapean hartuta, iritzi publikoari errealitatearen zertzelada hutsal, oker bezain zikinak eman dizkiote. Politika jokua lokatztua izan bada, zer esanik ez zenbait komunikabideena. Eta hala eta guztiz ere, justu, espero zutenaren aurkakoa gertatu da!

Ez da ba hori prexio kazetari bati fakultatean erakusten diotena. Denborarekin etortzen den gaixotasuna ote? Espero dut nik txertatuta egotea.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



# Baserrietan 200 txori habi baino gehiago jarri ditugu aurten

**O**rain dela urte batzuk gure taldeak txori habiak jarri zituen zenbait tokitan, baina zenbait "herrikosemek" ia guztiak, 50 inguru, puskatu zituzten.

Aurten, ordea, ideia hori ez dugu bazterrean utzi, eta Alkartasuna Kooperatiba, Foru Aldundia eta udalari esker baserriarrek etxe ondoan txori habiak jartzeko aukera izan dute.

Gaur egun baserritarra eta bere senitartekoak dira benetako ekologistak. Zuei esker daude orekan gure mendi eta aranak, zuek duzue naturarekin harreman zuzena. Horregatik, egitasmo honetan parte hartuko zenuelakoan geunden, eta zuek ez diguzue huts egin.

Gaur egun multinazionalak bere botika miragarriak saltzen dituzte, gure baserrietako errentak %30 jaitsi dira, produkzio

"intentsiboa" bultzatzen dute, "estensiboa" ahaztu nahian eta nekazariaren sindikatuak (EHNE, EMBA, UAG-ELB) gai hauekin arduratuta daude. Guk, berriz, habiak doan eskaintzen ditugu.

Bi motatako txoriek erabiltzen dituzte habi hauek: intsektu jaleek eta trogloditek. Lehenengoek intsektuak jaten dituzte, bigarrenak, aldiz, zuloetan egiten dituzte beren habiak. Txori hauen lanari esker arrak eta intsektuak ez dira gehiegi zabalduko, ehundaka intsektu jaten baitituzte.

Baserriarrek etxe inguruan, zuhaitz baten adarrean, leku lasai eta ixiletan jarriko dituzte



guk banatuta 200 habiak. Zorte pixka batekin txoriek arraultzak bi aldiz jarriko dituzte habi horietan.

Eskerrik asko guztioi. Osasuna eta ekologia.

**E.K.B**

## Luis Mari Ormaetxeari erantzuna

**N**oaia! aldizkarian zure eskutitza irakurri dut eta ni ere "sutan" jarri naiz. Oso koldarra iruditzen zait zure mezua. ETaren aurka idaztera mugatu zara. Oso erraza da inork erantzungo ez dizunaren inguruan idaztea, oso ongi baitakizu inork ez dizula borroka armatuaren defentsan erantzungo, eta gutxiago aldizkari publiko batean.

Zure mezuaren arabera Euskal Herriko arazoaren muina ETA da, edo ematen diozun garrantzia ikusita ala dirudi. Badakizu ETA arazoaren ondorio bat besterik ez dela, eta badakizu baita ere herri

honi zor zaizkion eskubide kolektiboak errespetatzea ETari ez dagokiola. Hori, Madrili eta Parisi dagokie, ea haien aurka hain gartsu aritzen zaren. Faxistak diozu. Faxistak 36an Gernika bonbaz josi zutenak dira eta oraindik hori gaitzetsi nahi ez dutenak, PP-koak, alegia. Baina horien aurka ez daukazu ezer, ezta? Horiek demokratik al dira?

Jakin nahi nuke zein den zure bake proposamena. Zein den zuk aurkeztzen duzun bidea, zein den zure proiektua. hemen oso erraza da besteak kritikatzeko, eta are errazagoa ahulenaren kontra jotzea, baina mahai gainean

proposamenak behar dira, hitz egin behar da eta arazoari irtenbidea eman. Gainontzeko aitzakia guztiek sufrimendua- ren luzapena bakarrik dakarte.

Bukatzeke gonbidapen bat luzatu nahi dizut. Arazoaren muinaren inguruan hitz egin nahi baduzu, jarri tokia, eguna eta ordua, hantxe izango nauzu, hitz egiteko prest, kaputxarrik gabe. nahi baduzu publikoki hitz egiteko prest nago. Demostratu benetan hitz egiteko prest zaudela, demokrata zarela eta defendatu zure proiektua, proiekturik baduzu behintzat.

**Haritz Larrañaga**

## TXOKOALDE

Imanol Goenaga



### Espedizio benetan polita

**D**uela 100 urte Kantauri Itsasoko azken balea harrapatu zutela ospatzeko antolatutako ekitaldietako bat gure auzo miragarriaraino iritsi zitzaigun joan den maiatzaren 13an. Antzinako lau txalupaz osaturiko espedizio bat auzoko zubiraino gerturatu zen. Bertan auzotar zein kanpotar ugari bildu zen ikusmira handiz. Ondoren, sagardo kupela ireki zuten aparkaleku berrian, jate-naz lagunduta eta giro ederrean aritu ginen, eguraldia ere aldeko izan baikenuen.

Bestalde, egun bat lehenago Irisasi etxeko gazteek festa antolatu zuten egun osoan zehar, etxea okupatu zuteneko

lehenengo urteurrena ospatze aldera. Zikiro jana eta festa nagusi izan ziren egun guztian zehar eta gauean kontzertua izan zen, talde askoren partaidetzaz, Usurbilgo Parafilipin taldea barne. Gazte hauek piskanaka etxea txukuntzen ari dira eta gogoz egiten dute lan urte guztian zehar, emaitza ikusi besterik ez dago. Lehen inor bizi ez zen etxe triste hau beren bizilekutat hartu eta zeharo berpiztu dute. Eraikinak, berriz, bizileku faltan ziren gazte hauen beharrak asetzen ditu.

Amaitzeko ostiral honetan, hilak 18an, Akerra Gaztetxean beste kontzertu bat izango da. Lasarteko Bletz taldeak bere

lehen diska aurkeztuko du, Reptil eta Kray taldeen laguntzaz. Besterik gabe, agur eta sagardo egun ona opa dizuegu usurbildar guztiei.



## KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



### Bertsoak balkoitik balkoira

**S**agardo Egunak berez herritarrengan egundoko irrika pizten du urtero eta hori eskertzekoa da nolabait ere. Urtean behin sagardoaren hiri-buru bilakatzen da eta hori herritarrentzat harrotasuna bada ere, urte guztian zehar izan behar du sagardoak lekua.

Dena den, jende andana pilatzen den egun honetan kultur ekitaldiek badute bere lekua: irrintzi saioa, txalaparta, bertsoak, trikiti saioa... Hala eta guztiz ere, honelako laino multzoaren artean, askotan ekitaldiek folklore kutsua beharrean folklorismoaren norabidea hartzen dute, honela, zentzua eze-rezean geratzen da; hitz batean, bete-lana.

Aurten bertso eskolakook bertsoek nolabaiteko lekua izan dezaten balkoitik balkoira saioa egingo dugu maiatzaren 20an, eguerdiko 12.00ak aldera. Usadio zaharrari eutsiz -gaur egun mikroaz, noski-, Etxebeste kaleko balkoitik Irazu kaleko balkoira arituko dira bi bertsolari; Xabier Sukia eta Ibai Esoain, hain zuzen ere. Fernando Amezketarra eta Txabalategi duela 250 urte Villabonako plazan 4.000 pertsonen aurrean mikrorik gabe aritu

baziren ere, oraingoan Usurbilen beste hainbeste edo gehiagoren aurrean arituko dira Sukia eta Esoain. Jendearen arreta nolakoa izango den, beste upeleko sagardoa...



# KALEZAR

**Joseba Pellejero**



## Zaharrak berritzen

**M**aiatzak 13. Arratsaldeko 21.00ak dira. Hamabost egun gogor batzuen ondoren, orain, ordu honetantxe, hautesleen botu guztiak zenbatzen ariko dira. Gaur jende ugari hurbilduko zen gure auzora, hor bere bozka ematera; Txi-

kierditik, Galtzaragainatik, Olarrondotik... eta eguraldi ona egin duela aprobetxatuz, buelta bat ematera goialde honetatik.

Berri ematera etortzen gara gu hona eta hasi beharko dut zaharrak berritzen. Aurreko ale batean idazten nuen bezala, Egiluze baserria eta Entzarrain bidegurutze artean zegoen pinudi ikusgarria bota egin zuten. Usurbilen dauden

pinurik handitxuenetako batzuk izango ziren hemengoak, baina orain beste leku batera joan beharko dugu horrelako zuhaitzak ikustera.

Bestalde, esan nuen bezala, Ugarte atzeko lantegi ondoan egingo dute sindikatu berria. Lurjabearekin hitzarmena sinatu ondoren laster hasiko dira eraikin berriarekin. Mila metro karratu izango ditu bi solairutan, ez da, beraz, nolanhikoa izango. Joxe Ramonek eta Maria Luisak izango dute non lan egin!

Hauteskundeak hauteskundera, Kalezarrek lehengoa izaten jarraituko ote du!



# ATXEGALDE

**Jone Eizmendi**



## Atxega jauregia

**M**aiatzan gaudenez, Atxega Jauregian lan asko izango dutela pentsatzen dut, jaunartze ugari izaten baita. Horrez gain, ezkontza eta elkarreko bazkari-afari asko ere izango da ziurraski.

Atxega Jauregiar ari naizenez, inguru horretaz zerbait esan nahi nuke. Aparkatzera koan denak berdina egiten dugu, ahalik eta gertuen utzi gure ibilgailua. Bai, egia da, baina gauza bat eduki behar dugu kontuan; ume kotxeren batek edo elbarrituen aukiren batek igo behar badu, bideska horren parean kotxeak egoten direla eta gehienetan bidea itxita egoten dela. Edozein ume edo heldu aukiarekin etortzen denean oztopo ugari



izaten du kotxeen erruz, eta gauza hauek kontuan hartu beharrekoak direla uste dut.

Konponbide bezala bide pare horretan seinaleren bat jartzea litzateke egokiena, eskailera parean, adibidez; harri handi batzuk daudenez inork ez baitu hor aparkatzen. Bestela, hor ere antzekoa ger-

tatuko bailitzateke.

Gainera, nik Atxega Jauregi-ko kasua aipatu dudan arren, ez da ingurune horretan bakkarik ematen arazo hau. Herrian zehar leku ugarritan daude elbarrituek aparkatzeko toki bereziak eta ondo seinatuak, gainera, guztiok ikusi eta ulertzeko moduan. Baina, horietan aparkatuta egoten diren kotxe guztiak elbarrituenak ote dira? Hor aparkatzeko baimenik ba ote dute?

Azkenik, abiada bizian doakigu hilabetea; Andatza Eguna, hauteskundeak eta gain-gainean dugun Sagardo Eguna. Aprobetxa dezagun egun polit hau, gure herrira jende asko erakartzen baitu. Ondo pasa eta neurrian edan!



# SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



## Guk ere ikusi genuen

**A**zken asteotan gustura gaude herrian, harro. Iruñeko San Antonio taldeak Eskubaloiko Eurokopa etxeratu baitzuen joan den apirilaren 28an. Gure pozaren jatorri nagusia ez zen Iruñeko taldearen garaipena, talde euskalduna izaki hori ere pozgarria den arren. Gure harrotasunaren iturriak Xabier Mikel Errekondo du izena. Usurbildarrak berriz ere argi eta garbi adierazi du punta-puntako kirolaria dela eta auzoan nostalgiaz gogoratzen dute Xabier Mikel bertako zelaian ari izen zeneko garaia. 1983an abiatu zuen bere ibilbidea erre-kondotarrak, Usurbil K.E. taldean. Hiru urte nahikoak izan

zituena eskubaloian, altua ezezik, haundia zela erakusteko.

Zorionez eta harro gogoratzen dituzte auzotarrek bertako zelaian Xabier Mikelek sarturiko golak, bakoitzaren oihu eta animoek dagoen tokirako bul-tzadizoa emango ballote beza-



la. Eta ziurraski emango zioten. Orain ere gustura hartuko genuke auzoan garai bateko kirol mugimendua, puntara nor iritsiko denaren inguruko apustuak egiteko ez bada ere. Guk ere ikusi genituelako Xabier Mikelek golak.

Eta ikusten ditugu, baita, Zubeldia anaien igoerak auzotik barrena. Halako aldapa egunero igotzea baina entrenamendu hoberik ba ote? Oraindik Atxegalden biziko ballara, hain txirindulari trebeak izango al ziren? Txantxak txantxa Santuenea puntako kirolarien testigu fidela bilakatu zaigu. Zorionak batzuei eta zorte ona besteei.

# URDAIAGA

Joseba Zubeldia



## Gu ere bagara

**G**ustura arituko dira, ziurraski, txoko honetako nire kideak beren auzoen berri emanaz. Izan ere, maiatza inguratuz gero izaten baitute zer kontatua Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua dela eta ez dela. Inbidiaz nator oraingoan. Zer kontatua izanagatik baino, gure auzora egitarau hau iristen ez delako. San Esteban gunedeerra da, lasaia, polita, berdea... hemen haur izatea, ordea, ez da lan makala.

Urte luzeetan zehar aritu gara autobus geltoki egokia eskatuz, aterpea eta guzti, alegia. Guretzako ikastolara euritan busti gabe iristea abentura

antzekoa baitzen. Eskatu eta eskatu hori lortu dugu. Orain, Plis, Plas ez da gurera iristen. Badakit, hemen ez dira haur asko. Halakoak antolatzea, ordea, guztion mesederako dela uste dut. Bai gure auzoko txikien mesederako eta beste auzokoen mesederako ere.

Izan ere, halako antzerki edo ipuin-kontalari baten aitzakian herritik ere jendea inguratuko litzateke auzora eta arratsalde ederrea ingurune ederrean pasatzeko aukera izango lukete haur zein gurasoek. Eta bide batez, hau ere pixka bat bizituko lukete. Noiz edo noiz haurren algarak eta zalapartak

aztoratzea ez da txarra inorren-tzako, nik ere gustura hartuko nuke mugimendi mota hori. Dagokionari. Ez txarrean, ulertzekoa baita gure auzora egitaraua ez ekartzea. Onean, proposamen gisa, eskaera xume modura.





# AGINAGA

Iratxe Begiristain



## Plis, plas, txalo ta jolas

**A**zken urteotako bideari jarraituz, aurten ere "Plis, Plas, Txalo ta Jolas" egitaraua martxan da. Maiatza eta ekaina bitartean antzerkia, txon-xongiloak, jokuak, ipuin-konta-

lariak... denetik ikusteko aukera zabala izango dute auzoko haurrek, auzoan bertan edota ingurukoetan burutuko diren ekintza ezberdinetan.

Gurera maiatzaren 19an iritsiko da Udalak eta Noaua! Kultur Elkarteak antolatutako egitaraua. Gainera, Udarregi ikastolak, eskola txikiek, Guraso Elkarteak eta Auzoetako Jai Batzordeek ere badute partea honetan guztian. Durangoko Berba-

ro taldearen ipuin antzeztuak izango dira ikusgai Aginagako eskola txikian arratsaldeko 17.00etatik aurrera.

Ondoren, eta Aginagako Jai Batzordeak prestatuta, txokolata-tada ederra izango da. Iaz ere izan zen txokolatea baina eguraldi benetan beroa izan zenez, txikienek txokolatea baino izozkia eskatzen omen zuten. Aurtengoan ere egin dezala eguraldi ona. Eguraldi txarra baino konponbide hobea baita txokolatea hotza hartzea. Beraz, badakizue, ez ahaztu larunbatean hitzordu berezia izango duzuela, merienda eta guzti, gainera.



# ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



## Etxeko txikienen festa

**H**alaxe izan zen joan den larunbatekoa, etxeko txikienen festa. Urtero bezala Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua iritsi baitzen eskola txikira. Eguraldia lagun haur ugari gerturatu zen Kixka taldearen Bolaluma txontxongilo ikuskizuna ikustera, guztiak ere gurasoak lagunduta.

Ondoren txokolatada eta jolasa izan ziren nagusi. Askok aste guztia parke honetan eman arren, asteburuetan ere gogoz hartzen baitute eskola txikiko berdegunea. Benetan eskola ederra dugu gure herrian, egoki itxita eta inongo arriskurik gabea. Eguzkia izanez gero, jolastoki aparta.

Arkupeek ere joko handia ematen dute eta haur asko, eguzki zein euri, hor aritzen da pilotari eman eta eman. Hemen pilotari handiak hezituko dira, garai bateko arkupeetan hazten baitziren esku pilotako maisu asko.

Eta pilotaz hasi garenez, azken asteotan aukera ederra dugu Zubietako pilotalekuan, Iparraldeko joko garbi eta errebote txapelketa dela medio.

Ekaina erdialdera bitartean partidak izango dira larunbat arratsaldez edota igande goizez. Parada benetan polita paseoan Zubietaraino gerturatzeke. Gonbidapena, behintzat, luzatuta dago.



# Frontoi atzeko parkea burni hodirik gabe ikusi beharko dugu laister

**E**skilaretan gora igo, txirristatik behera jeitsi, txirrista txikitik igaro, ondoko jolas tresnean zintzilikatu... zenbat ume pasa ote da frontoi atzeko parketik! Hemendik aurrera, ordea, ez da horrelakorik izango. Paris etxe atzeko parkea ireki bezain laister akabo umeen goitik beherakoak. Burnizko aparailu guztiak kendu eta momentuz bere horretan uzteko erabakia hartua du udalak.

Euskal Herri osoan antzeko parke baten bila ibilita ere nekez aurkituko dugu frontoi atzean dagoen parkea bezalakorik. Txirrista haundia da aparailu guztien errege. Sei metro inguru ditu luzeran eta altueran ere ez da atzera gelditzen. Gainera, duela urte batzuk jarritako estalkiak erabat nabarmentzen du gure herrira etortzen den edonork bertatik jeitsi nahi izaten duen txirrista. Txirrista txikian ibiltzen aspertu bezain laister haundira begira jarri eta hitz egiteko gai ez badira ere bertatik jeisteko nahia adierazten dute nabarmen.

Parke horretako aparailuek normalean gozamina sortzen dute herriko umeen eta ez hain umeen artean, baina dibertsiorako tresna izateaz gain arrisku iturri ere izan daiteke. Zenbat izango ote dira parke honetan erori eta koskorrekoren bat hartu, hezurren bat apurtu edo eta zauri txikiren bat egindakoak. Izan ere, umeek berezkoa duten bihurrikeriaren ondorioz gertatu ohi dira istripuak, baina ez dugu baztertu behar haur parkearen egoera txarra



izateak ere istripuak areagotu ditzakeela.

Hori izan da frontoi atzeko parkeko aparailuak kentzeko arrazoi nagusia. Udaleko ordezkarien esanetan horko jolas tresnak kentzearen ideia ez da gaur goizekoa. "Parke arriskutsua denik inork ezin du ukatu. Gurasoak tentsioan egoten dira beren 2-3 urteko

*haurrak hor dabilzan bitartean eta Paris etxeko parkean haurrentzako jolas tokia jartzera goazenez parke hau bukatzean burnizko aparailu guztiak kenduko dira". Parke diseinatu eta aparailu guzti hauek jartzeko ideia izan zuen Joxe Luis Zumetak ere berdin pentsatzen du. "Bere funtzioa bete du dagoeneko. 25 urte inguru baditu eta jubilatzeke garaia iritsi zaiola uste dut. Hala ere, nire ustez plaza hobeto geldituko da jolas tresnik gabe".*

Euskal Herrian jolasgune ugari badago ere ez dago hauen segurtasuna kontrolatzen duen araudirik. Hego Euskal herriko udalek Europako Batasuneko araudia erabiltzen dute erreferentzia gisa, baina gomendio horiek kontuan hartzea edo ez aukerakoa da. Izan ere, araudi horretan agertzen diren baldintzak zorrotzak dira. Jostailuen tamainua, materiala, altuera, jolasgune barruko antolaketa eta aparailuen artean egon behar duen distantzia aurreikusten ditu.

Bestalde, parkeen zoruari ere garantzia haundia ematen zaio araudi horretan.





Euskal Herrian harea, belarra, harria eta porlanaren gainean eraikitako jolastoki ugari daude. Usurbilen, adibidez, porlana, harria eta belarraren gainean egindako jolastokiak badira.

Cosumer aldizkariak duela urtebete egin zuen txostenaren arabera edozein parketan akats ugari topa daitezke: umeei ebakiak sortarazteko moduko zati apurtuak, tinkatzeko sistema desegokiak, altuera handiko txirristak, zoru gogorregiak... Horrez gain, zainketari dagokionez, pinturageruza beharko luketen aparailu asko topa daitezke Euskal Herrian, askotan infekzio

arriskua ekar dezaketen zati herdoilduak edo apurtuak dituzten jolas tresnak hain zuzen ere.

Hala ere, parkeen arazoa ez da parke berriena zaharrena baizik. Berriak egiterakoan EBren araudia jarraitzen da, baina zaharren kasuan indarrean legerik ez dagoenez egoitzapenak ez dira egiten. Usurbilen, behintzat, parke berriek segurtasun neurriak betetzen dituztela adierazi digute. *"Urdaia gako Leizekalde parkeko jolastokiak eta Paris etxe atzeko jolastoki berriak eroriaz gero kolpea moteltzeko moduko zoria dute."*



## Joxe Luis Zumetak 1974. urtean diseinatutako parkea

60. hamarkadaren bukaeran horma haundi batez inguratutako soroa zen frontoia eta Gaztañaga baserria bitarteko lurzatia. Ez, ordea, denbora askorako. 1. poligonoa zerritzanean 48 etxebizitza egin zituzten hurrengo urteetan. Aparkaleku bat egiteko asmoa ere bazuten, baina arazo batzuk tarteko bertan behera utzi zuten egitasmo hura. Horren ordez plaza bat egitea erabaki zuten etxebizitzaren ondoan.

Plan partzialean aurreikusten zen plaza ez zen gaur egun ikusi dezakeguna. Izan ere, udalak Joxe Luis Zumetari

plaza hori diseinatzeko esan zion. Esan eta egin. Honek egindako maketa Donostian aurkeztu eta lehendik aurreikusita zegoen plaza bertan behera utzi eta orain dagoen parkea egitea onartu zuten.

Joxe Luis Zumeta berak esandakoaren arabera hasieran plaza bakarrik jartzeko asmoa zuten, jolastokirik gabe. *"Aurrena plaza bera egin genuen. Nik diseinatu nuen, bai material aldetik eta bai forma aldetik. Ondoren, Pello Muguruza zena eta Joxe Elortzak egin zuten plaza. Gero jolastokia jartzea erabaki zuten*

*eta nik aukeratu nituen aparailuak. Hemen inguruan ez zegoen hain altuera handiko aparailurik. Horregatik ahal zen moduan dokumentatu eta Suecia inguruan honelakoak bazeudela jakin nuen. Hala ere, diru gutxi zegoen jolastoki hau egiteko eta material aldetik etab. ez zegoen aukera haundirik".*

Hala ere, frontoi atzeko parkeak aldaketak izan ditu azken 15 urteetan. Txirrista handia moztu egin zuten lehendabizi eta gero, segurtasuna bermatu asmoz, estalkia jarri zioten.

## Julian Urkiola: "Erleak egunero erakusten dio zerbait erlezainari"


**P**asa den apirilaren 28ko III. Erle Egunean aditu zein pertsonaia ezagun ugari aritu ziren I. Euskal Herriko Lehiaketako epaile lanean. 50 ezititik gora dastatu eta gero, banatu zituzten sarietako bat etxean geratu zen, Julian Urkiolarena izan baitzen Euskal Herriko lorebakarreko ezitirik onena.

**Lehenengoz zure ezitia lehiaketara aurkeztu eta saria etxeratu duzu, ez da marka makala.**

Oso gustura nago, oraindik sinistu ezinik. Hala ere, ez dut uste lehiaketa gehiagotara aurkeztuko naizenik. Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak antolatutako lehiaketetan aritzen gara hiru lagun epaile lanean. Honegatik guk ezin ditugu gure ezitak lehiaketara aurkeztu. Usurbilgoa Euskal Herri mailakoa zenez nire ezitia ere aurkeztu nuen, baina ez dut gehiago aurkeztuko. Itsusia da epaimahaiaren egon eta lehiaketan ere parte hartzea.

**Noiz eta nola hasi zinen eztingintza munduan?**

Duela hamabost bat urte hasi nintzen. Nire aita zena aritzen zen eztingintzan, baina gaisotu eta utzi egin zuen eta nik ez nuen jarraitu. Urte batzuk pasata, erle erreginarengatik inguruko ikastaro batean parte hartu nuen eta orduan hasi nintzen.



**Erle Egunean garaile izandakoa Aranoko ezitia omen zen.**

Bai, erlauntzak Aranon, Ereñozun, Txiki-erdin eta Errekalden dauzkat. Guztira lau gune hauetan 60 bat erlauntza dauzkat.

**Beraz, erleak zaintzen hamaika ordu emango dituzu.**

Gutxi edo gehiago egunero joaten naiz erlauntzak zaintzera, aldiro toki batera. Gainera, garai batean 20 bat erlauntza baino ez nituen eta orain 60 dauzkat.

**Eta zein da ezti onaren sekretua?**

Mimoa, txukuntasuna, garbitasuna eta denbora luzez erleen lanari begira egotea. Eta loreei bezalaxe, erleei ere hitz egitea.

**Erleak zuzentzen du, beraz, eztingilearen lana?**

Bai, erleek beti zerbait erakusten dizute. Zenbat eta denbora gehiago egon beraiei begira, orduan eta gutxiago dakizula konturatzen zara. Beraiek dakite ezitia nola egin, guk ez dakigu ezer.

**Erlea intsektu oso langilea da, ezta?**

Langileena dudarik gabe. Guk egindako lan hori lapurtzen diogu, esatea gaizki badago ere. Trukean habeasakak jarri, kaxak txukun mantendu, dituzten gaisotasunak zaindu, beren jarduna begiratu... halakoak egiten ditugu. Baina ezitia beretzako egiten du erleak, negua pasatzeko.

**Urteotan sustoren bat edo beste ere izango zenuen.**

Hasi eta berehala. Bizkarrean neraman erlez betetako kaxa hautsi egin zen eta gorputz guztian zehar ziztadak jaso nituen. Kaleko arroparekin nengoen eta oso gaizki pasa nuen. Egon, egon eta egon, mugitzea txarragoa izaten da eta. Egun pare bat pasatu nituen dena haundituta, begiak, ezpainak, besoak... Urteen poderioz ohitu egiten zara. Orain eskularrurik gabe sartzen naiz askotan eta erleak lasai baldin badaude, baita jantzi berezirik gabe ere.

**Amagoia Mujika**

**RAMON BARCENILLA**

- . Pikor- pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze-lanak
- . Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL  
MOBILA: 629 46 09 66



**Kima**  
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA

**OSU**

Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA



# Euskal Herriko Naziotasun aitormena lortzeko aukera

**U**dala Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzen hasiko da datorren maiatzaren 19an. Horretarako behar beharrezkoak diren paperak iritsi dira udalera eta egun horretatik aurrera bertako lehiatilan egin ahal izango da agiriaren tramitazioa.

Agiri hau eskuratu nahi duenak adierazpen honi baiezkoa emango dio:

Nik, Euskal Herritarra naizen honek, zera aldarrikatzen dut:

- Euskal Herria, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Beherea eta Garaia, Lapurdi eta Zuberoako lurraldez osaturiko herria dela.

- Euskal Herriaren hizkuntza euskara dela, denon aldetik begirune osoa behar duena, eta euskal lurralde osoan estatus ofizial nahikoa izan behar duela.

- Euskal herria, bere buruaren jabe, beregain, libre eta de-

mokratikoki erabakitzeke eskubidea duen nazioa dela.

Horrekin batera aitormena, hauxe izango da: Ni Euskal Herritarra naiz, eta Euskal Naziotasunaren jabe naiz. Oharmen, nahimen eta erabakimendu osoz, Euskal Herriaren bizi-partaide naiz, eta guztiz aintzakotzat hartzen dut Euskal Herriaren berezko izantza, eta beregain bizitzeko borondatea, egungoa eta etorkizuneko.

Agiria egiteko, orde, behar beharrezkoa izango da honako hauek eramatea:

- Euskadiko Kutzako 303550235 28 2350014890 kontu korrontean "Usurbilgo udala" ezarriz 2.000 pezeta sartu direneko ziurtagiria.

- Hiru argazki.

- Udaletxean emandako paperak bete behar dira datu personalekin.

- Hilabeteren buruan prest egongo da agiria.

## Motzean


### Usurbilgo udal liburutegiaren oharra

Lehenik eta behin, zera adierazi nahi genuke: Liburutegiko erabiltzaile guztiek aukera berdina izan ditzaten, bertako liburuak etxera eramane eta luzaroan itzuli gabe dituzuen guztioi, arren, dei egiten dizuegu, lehen bait lehen itzul ditzazuen.

Bigarrenez, Usurbilgo Udal Bibliotekak bere zerbitzuak hobetze aldera, bertako zerbitzuak informatizatu dituela jakinarazi nahi dugu, hala nola, OPAC edo Katalogoa eta Mailegua edo prestamoa (momentuz liburuak eta aldizkari atzeratuak soilik mailegatzeko dira). Azken zerbitzu hau erabili nahi duten guztiek, bazkide txartel berria lortu behar dute liburutegian.

### Usurbilgo udal liburutegiaren oharra

Urtero bezala herriko eta auzotako festetarako bi peoi, elektrikari laguntzaile bat eta lorazain laguntzaile bat kontratatuko ditu udalak lau hila-betarako. 18 urtetik gorako izatea eta 1998ko urtarillaren lehenetik udalerrian eroldatuta egotea edo bost urtetan herrian bizi izana egiaztatzea izango dira besteak beste bete beharreko baldintzak. Eskerak udaleko lehiatilan aurkeztu beharko dira maiatzaren 31a baino lehen.



## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021

Kale Nagusia, 9 USURBIL  
Tlf. 943 37 33 48  
943 37 09 13

LABE-GOXO  
Oktiddegia - Goxotegia

**JUANTXO**  
burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08



# EAJ-EA koalizioa nagusi 1.642 botorekin maiatzaren 13ko hauteskundeetan

**E**AJ-EA koalizioak 1.642 boto bilduz irabazi du Usurbilen. 1.998ko Legebiltzarrerako hauteskundeetan baino 638 boto gehiago hain zuzen ere. PP, PSOE eta Ezker Batuak ere orain arteko boto kopurua hobetu dute.


EHk, aldiz, boto ugari galdu ditu. 1.999ko Udal hauteskundeetan 1.669 boto eskuratu zituen aipatu alderdiak eta igaro berri ditugun Legebiltzarrerako hauteskun-

deetan, berriz, 1.109 boto. Beraz, 500 bozka gutxiago lortu ditu eta Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan baino 366 boto gutxiago. Euskal Autonomi Erkidego osoan gertatu bezala, EHren boto gehienak EAJ-EA koaliziora joan dira gure herrian ere.

PP eta PSE alderdiek ere gora egin dute. PSEk 382 bozka lortu ditu eta PPK 320, bi alderdien igoera berdintua izan delarik. Hau da,

1998an baino 60 boto gehiago. Ezker Batuak ere bere emaitzak hobetu ditu, izan ere, 101 boto lortu baititu 1998an baino 19 gehiago.

Partaidetzari dagokionez, botoemaitleen parte-hartzea igo egin da (%80,34), 1998an baino 357 boto gehiago. Abstentzioa, beraz, 7,2 puntu jeixi da. 1.998ko hauteskundeetan abstentzioa %26,9koa izan zen eta maiatzaren 13kotan, aldiz, %19,7a izan da.




2001eko EAeko Legebiltzarrerako hauteskundeak

Auzoak	Errolda	Boto-emalea	Absten.	EAJ-EA	EH	PSOE	PP	IU
Kaleb./ Etxe./ Atxe.	1.792	1.456	% 18,7	686	455	152	108	41
Agi./Sant./ Urda./Txok.	1.068	802	% 24,9	354	259	68	92	27
Kalezar Olarriondo	1.355	1.111	% 18	473	320	159	114	32
Zubieta Txikiardi	245	214	% 12,6	129	75	3	6	1
<b>Usurbil osoa</b>	<b>4.466</b>	<b>3.583</b>	<b>% 19,66</b>	<b>1.642</b>	<b>1.109</b>	<b>382</b>	<b>320</b>	<b>101</b>



## Eguraldi txarra Andatza egunean

Ez zen giro izan Andatza egunean. Aurreko egunetan bezala euriak bereak eta bi egin baitzuten maiatzaren 6an. Hala ere jende dexente igo zen Andatzako puntara. Txabolaren aurrean plastiko bat jarria zuten Andatza K.K.E.-koek eta salda beroa edo txorizo eta haragi egosi ogitartekoa hartuz indarrak berritzeko aukerarik ez zen falta izan. Urteroko festa, ordea, bere horretan gelditu zen, igotzen zirenek zerbait hartu eta beheerako bidea hartzen baitzuten.



**G**ipuzkoako herri arteko txapelketan bigarren kanporaketara sailkatzea lortu dute herriko pelotariak. Lizartzan 2-1 (22-10/7-22/22-7) galdu bazuten ere pasa den maiatzaren 4an herriko frontoian jokaturako partiduetan kadetak 22-16 nagusitu ziren, 22-4 jubenilak eta helduek 22-21 galdu zuten. Tanteoz bada ere aurrera egingo du Usurbilek, Tolosa, multzoko hirugarren taldea, erretiratu egin baita. Hurrengo kanporaketan Azkoitia izango dute aurrez aurre.

## 61 odol emaile maiatzaren 7an

Jende asko hurbildu zen urteko hirugarren odol emanaldira pasa den maiatzaren 7an. 61 usurbildarrek eman zuten odola eta horietatik bi berriak izan ziren. Beraz, gustora zeuden Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteko kideak, pertsona dexente agertzeaz gain lehen aldiz odola eman zutenak ere bertaratu baitziren. Hurrengo odol emanaldia uztailaren 9an izango da. Beraz, bada-kizue, odola eman nahi duzuen guztiok anbulategira gerturatu zaitezke 19.00etatik 21.00etara.



**T**xokoaldeko zubiak beste zubi bat zirudien pasa den maiatzaren 13an. Zenbait banderaz apainduta zegoen eta jende ugari ikus zitezkeen zubiaren albo batean. "Hiru ibai rallye"-ko 5 txalupa ibaian gora etortzekoakbaziren ere ez zen txalupa guztiak ikusteko aukerarik izan, hauetako bi bakarrik azaldu baitziren Txokoaldeko uretan. Gero nahikoa sagardo edan eta mokadu bat jateko aukera izan zen Illunbe aurreko aparkalekuan.



**M**aiatzaren 12an eman zitzaion hasiera Plis Plas Txalo ta Jolas haurrentzako egitarauri Zubietan. Bertan KIXKA txotxongilo taldeak "Bolaluma" antzerkia eskeini zuen. Txotxongilok ez zuten harrera txarra izan. Bertan eskola txikiko aterpean 30 haur inguru bildu baitziren. Txokolatada goxo batekin eman zitzaion bukaera ekitaldiari. Hurrengo zita Aginaga auzoan dute herriko txikiak. Izan ere, maiatzaren 19an Berbaro Elkartea arituko baita bertan.



## MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

*Udaberriko moda berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



## Urtinea

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

## Patxi Esnaola: “Abiadura Handiko Trena erokeria da”

**A**pirilaren azken aste-bukaeran Gipuzkoa-ko hainbat azpiegitararen- Abiadura Handiko Trena, Pasaiako Superportua eta Donostialdeko bigarren autobidea- aurka aritzen diren taldeak Gaintxurizketan kanpaldia antolatu zuten. Oreretatik Lezora bitarteko kalejira batekin eman zioten hasiera ekimenari, baina Lezoko sarrerara iristean ertzantzak parte-hartzaileen aurka jo zuen eta bi pertsona atxilotu zituen. Hauetako bat Patxi Esnaola usurbildarra izan zen, AHTaren Aurkako Asanbladako kidea.

**Azaldu iezaiguzu nola izan ziren Ertzantzarekin istiluak.**

Nire atxiloketa proiektu txikitzaileen aurka Gaintxurizketan egin zen kanpaldian kokatu behar da. Kanpaldiaren berri emateko asmoz, Oreretatik Lezora bitarteko kalejira batekin eman genion hasiera. Behin Lezoko sarrerara iristean ertzantzak kargatu egin zuen eta bi pertsona atxilotuak izan ginen. Niri bi behatz apurtu zizkidaten, hankan ebaki sakon bat eta hainbat kolpe gorputz guztian. Erietxera joan behar izan nuen kolpe anitz nituelako.

**Zein izan zen Gaintxurizketan burututako kanpaldiaren helburua?**

Kanpaldiaren helburua Oarsoaldea, Bidasoa Behera eta Donostialdeko eskualdeetako zenbait talde eta pertsona interesatu elkartu eta proiektu txikitzaileen aurkako lanean jorratu beharreko bidea aztertzea zen. Izan ere, zonalde



honetan hainbat azpiegitura egiteke baitaude: besteak beste, Abiadura Handiko Trena, Jaizkibelgo Superportua, Donostialdeko bigarren autobidea eta Gaintxurizketa inguruko garraio plataforma erraldoiak. Guzti hauek ez dira inolaz ere egitasmo isolatuak, lotura zuzena dute elkarren

**“Nire atxiloketa proiektu txikitzaileen aurka Gaintxurizketan egin zen kanpaldian kokatu behar da”**

artean eta makroproiektu txikitzaile baten barnean kokatu behar dira. AHTak berebiziko garrantzia du horren gauzatzeari.

**Aipatutako proiektu hauek, Abiadura Handiko Trenaren proiektuak kasu, ze kalte eraging ditzazke?**

AHT proiektua erabat anti-soziala, anti-ekologikoa, balia-bide xahutzailea eta Euskal

Herriarentzat guztiz ez aproposa da. Hona hemen datu batzuk eragingo lituzkeen zuzeneko eraso ekologikoen ideia bat egiteko: 460 km abiadura haundiko trenbide, 134 km tunel, 34 km biadukto, 65 milioi m<sup>3</sup> lur mugimendu, 25 milioi m<sup>3</sup> lur hondakindegietarako, 674 Ha trazaketak harrapaturiko lurrazala, 518 Ha hondakindegiek harrapaturikoa...

**Proiektu honek erantzuten al dio gaur egun Euskal Herriak behar duen lurralde antolakuntzari?**

1996.urtean europar komisiok esan zuen trenbide-entresa mota berri bat behar zela, gauza guztien gainetik negozioa izan beharko zuena. Honen bitartez argi islatzen du ze eredu ekonomiko dagoen AHT bezalako proiektuen atzean.

**Eredu kapitalistaren isla garbia, ezta?**

Arnaldo Otegi berarentzat sozialismoaren definizio hobereena dena, hots, gizakia



gauza guztien neurria izatea helburu duen gizarte antolaketa, bete-betean apurtzen du, eta dirua gauza guztien neurri bezala duen gizarte eredu kapitalista basatia jaun eta jabe ezartzen du. Azkenaldi honetan horrenbeste aipaturiko erakintza nazionala, neurri haundi batean, aspaldidanik eta egunero-egunero gorpuzten ari da, eta geroz eta garbiago ikusten da metropoli erraldoiez, Usurbil Baiona-Donostia metropoliak jango lukeena, osaturiko Euskal Megahiri edo "Euskopolis" bateruntz goazela, zeinak gure identitate, kultura eta izaera, Mayor Orejak berak baino hobeto bidaliko dituen pikutara. Globalizazio ekonomiko eta kulturalaren antzerkian guztiz txertatutako Euskal Herriaren eraikuntza da planteatzen dena. Eta AHT hori dena bultzatzen duen bigarren "Franco" modukoa da. Gainera, nork ziurtatzen digu 1998an Merkataritza Ganberrek proposaturiko AHTrentzako "L" izenarekin ezaguna den trazaketa ez dela aurrera aterako etorkizunean?

### **Zer dela eta, diozu hau?**

Izan ere, bere garaian aurrera atera ez arren, iazko ekainean argitaratu zuten Eurohiriaren Liburu Zurian marrazturik azaltzen baita. Hala ere, iluntasun handia dago gai honen inguruan. Donostiako hiri

erdialdetik jarraituz, Añorga, Usurbil, Aginaga eta Andatza (Aia) zeharkatzen ditu horrek, Bilboko norabidean zuzen-zuzen. Guzti hau oso larria izan arren, nire ustez, orain arte azaldutako kalte guzti hauen adinako edo behar bada gehiagoko garrantzia duen ondorio latza ere bada- kar AHT motor eragile bezela izango duen makroproiektu beldurgarri honek: zeharkako eraso ekologiko bortitza. Baina honen azalpena egiteak luze joko lidake eta beste baterako utziko dut.

### **Nola ikusten duzu AHTaren aurkako mugimendua gaur egun?**

Tamalgarrria da baina orain arte gizarteak ez dio behar

adinako garrantzirik eman afera honi eta garaia delakoa nago. AHTren "Y" izenarekin ezaguna den trazaketari pasa den otsailean eman zitzaion behin-betiko onespina eta lanak lrunen aurten has-tekoak direla esan zuten. Euskal Herria bere buruaren jabe eta euskalduna izan dadin lanean aritzea merezi al du aipaturiko infernua bera dirudien itzulezinezko gizarte eredu horren aurka ere zer- txobait egiten ez den bitartean?

### **Zure ustez, Euskal Herrian bala dago proiektu honen aurkako sentsibilitaterik?**

Sortu berria da Euskal Herriko hainbat erakundek osaturiko elkarlan talde bat, AHT

GELDITU! ELKARLANA deiturikoa. Bere helburua ekintza batasun bat eratzea da proiektu hori gelditu eta atzera botatzeko. Partaide-tza irekia dago oraindik eta besteak beste erakunde hauez osaturik dago: EH, Ezker Batua, Zutik, Batzarre, LAB, EHNE, ESK, Hiru, CGT, Haika, AHTren Aurkako Asanblada, Eguzki, eta Lurra Deialdia.

### **Zeintzuk dira aurrera begira planteatu dituzuen ekimenak?**

Hemendik gutxira ekimen ausarta dugu esku artean, izan ere, lehen aipatutako AHT GELDITU! ELKARLANAK manifestazio bat antolatu baitu ekainaren 16rako Donostian. Bide batez, bertara joateko deia zabalitzen dizuet.

**Agurtzane Solaberrieta**



**PUBLI EGUNKARIA**



# Martxa zapatistako bizipenak ezagutzeko aukera UGAk antolatutako hitzaldian

**H**aritz Larrañaga eta beste bi zarauztar Mexikon izan ziren "Zapatour" edo martxa zapatistan egon ziren pasa den otsailean. Beste atzeritar askoren antzera Marcos komandantea eta Chiapaseko gainontzeko indigenek Mexikoko hiriburura egin zuten martxan zaindari lanak egin zituzten "internazionalista" hauek. Pasa den maiatzaren 9an Udarregi zaharrea eman zuten hitzaldian bertan bizitakoa agertu zuten.

Mexikoko Chiapaseko indigenek egin zuten martxak ikusmin handia sortu zuen pasa den otsailean. Autobusetan sartuta milaka kilometro egin zituzten Mexiko Distrito Federal hiriburura. Mexikoko parlamentariak, eta bide batez mundu osoak, beraien ahotsa entzutea zen martxa honen helburu nagusia. Hiru ziren beraien eskakizunak: Chiapasen militarrik dituzten postu batzuk kentzea, preso politikoak askatzea eta indigenen eskubideak errespetatzea.

Hauekin batera, ordea, "esku-doa" lanak egin zituzten milaka atzeritar izan ziren bertan, horien artean zeuden hiru zarauztar hauek ere. "Atzeritarrek tartean nahi zituzten. Izan ere, hauetako bati zerbait gertatuaz gero mundu osora zabalduko zen berria. Horrez gain, atzeritarrek egonda nekez egingo zuten Zapatisten kontrako erasoren bat".

Martxa hasten zen lekura, San Cristobal de las Casasera, iritsi zirenean urduritasuna omen zen. "Momentu historikoa zen. Chiapaseko indijenek oihanetik jeitsi behar zuten Mexikoko hiriburura joateko. Batzuk honen kontra zeuden, besteak alde, baina inork gutxi esaten zuen zerbait honen inguruan. 50.000 indigena inguru jeitsiko zirela esaten zuten, baina ez genekien noiz".

Oihanetik jeitsi ziren momentua ikusgarria izan zela aitortzen dute. "Milaka indigena etorri ziren mendian behera, 50.000 inguru. Gizonezkoak kaputxa beltza zeramatzen buruan, emakumezkoek, berriz, zapi gorria. Itxura horrekin milaka pertsona ikustea ikusgarria izan zen. Hurrengo goizean atera behar genuenez jendeak edozein tokitan egin zuen lo, kaleetan, bideetan...".

## Beraientzat nahi zuten protagonismo osoa

Hurrengo egunean hasi zen martxa Marcos eta gainontzeko komandateak zioazen autobusa buru zutela. Autobusak ikus-tekoak omen ziren. "Autobusak bitan banatu zituzten: azkarrak eta mantsoak. Segurtasuna bermatzeko komandanteen autobusak 80 km/h-ko abiadura baino gutxiagoan ezin zuen joan, eta gainontzeko autobus guztiek ahal zuten moduan jarraitzen zioten". Egunean 4-5 mitin egiten omen zituzten, guztietan mezu bera zabalduz: democracia, justicia y libertad. "Hala ere, oso teatroak dira eta dena oso ondo neurtuta edukitzen zuten. Beraientzat nahi zuten protagonismo guztia, atzeritarrei, adibidez, kontsignak botatzea edo banderak ateratzea debekatu zituzten.

Hori bai, beraien mejikarrak dira. Ez dute independentzia eskatzen, autonomia baizik".

Une gogorak ere pasa zituztela aitortu zuten hitzaldian. "Autobusetan gindoazen atzeritarrei izugarriak esaten zizkiguten martxa zapatista herrietatik pasatzen zenean. Horregatik, autobusean gurekin zioazen indigenek jarri behar izan zuten leiho ondoko eserlekuan. Bestalde, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan, janari aldetik ez zegoen aukera haundirik: arroza, frijoliak eta laranja. Komunik ez, dendarik ere ez, autobusean garbitasun arazoak, epidemia...".


## Euskaldunak eta indigenak ondo konpontzen dira

Zenbait indigenekin harreman estua izan zuten zarauztar hauek. "Chiapaseko indigenak itxiak dira. Oihanetik jeitsi ziren eta ezberdintasun handiak nabaritu zituzten, beste mentalitate batekoak baitira. Batzuk gaizki pasatzen ari zirenez martxa zapatistatik alde ere egin zuten. Guk, ordea, autobuseko indigenekin harreman ona izan dugu. Beste atzeritar askorekin ez zuten politikaz hitz egiten, baina euskaldunokin bai". Zergatik ote?

Josu Aranberri



Eli Eizagirre Bruño



- Magisteritzako ikaslea
- Aginagatarra

# 3 er diyo?

## ... eta gero esan dute ikasleen bizitza xamurra dela!

**N**oiztik? Nik behintzat, eta nik bezalaxe beste ikasle asko eta askok, buruhaus-teak besterik ez ditugu izaten geure buruetan, loa kentzen digun galdera baita honako hau: "... eta hurrengo urtean zer?".

Selektibitatea egin ondoren eta Magisteritzako lizentziatura egiten hasi ostean, ikasketak amaitzean lanean bat aurkitzea zen nik neukan asmoa. Asmo hori, ordea, errealtatetik "piskatxo" bat urruntzen zela ohartu naiz urteen poderioz, irakasleentzat dagoen lan eskeintza oso murrizta baita dagoen lan eskaerarekin parekatuz gero. Eta are murriztagoa Lehen Hezkuntzan espezializaturik gaudenontzat.

Zergaitik? Bada, lehengo astean Unibertsitatean, mintegi batean izan ginen 3.mailako ikasleok, eta bertan azaldu zigutenaren arabera, Haur Hezkuntzan nahiz Hezkuntza Berezian espezializaturik dauden irakasleak, Lehen Hezkuntzako esparruan egon daitezke; Lehen Hezkuntzakook, aldiz, ez omen daukagu beste espezializazioetan lan egiteko aukerarik.

Ez dago eskubiderik! Hau inbasio bat da! (je, je, je...). Eta hori gutxi balitz, beste irakasle batek esan zigun, urteen poderioz, Ingurunea bezalako beste hainbat irakasgai ingelerez eman nahi zirela. Proposamen hori izugarritzko astakeria

dela iruditzen zait, izan ere, euskal Herrian bizi baikara eta Euskara gure hizkuntza dela kontutan harturik.

Eta proposamen hori aurrera aterako balitz, non legoke geure lan esparrua? Guk ikasketa guztiak euskaraz eman baititugu. Hizkuntza espainiarrean hitz egitea eta irakastea zaila egiten zaigu, pentsa ingelerez nola moladatuko ginatkeen!

"Irakasleok" pairatzen dugun errealtatea nolako den kontutan izanik, 3.mailan ari naizen hone-

tan, hurrengo urterako hainbat egitasmo baditut: alde batetik ikasten jarraitzea (nahiz eta oraindik zehazki zerri heldu jakiteke izan arren) eta, era berean, listetan izen ematea, irakasleak ordezkatuaz esperientzia piska bat izan dezan.

Lista hauek ere badute, ordea, beren alderdi txarra ere: hasteko, aukeratzen duzun herrialdeko urruneko herri ezezagun batean har zaitzakete, agian bi eguneko lan bat egiteko. Bertara ez bazara joaten, listetako azken postura jaisten zara; beraz, ezetz esateko moduan!

Beraz, hurrengo urtea nahiko gogorra izango delakoan nago. Baina, beno umorez hartu behar dugu egoera.

... eta gero esango dute irakasleen bizitza xamurra dela!

**"Irakasleentzat dagoen lan eskeintza oso murrizta da dagoen lan eskaerarekin parekatuz gero"**

**MIKEL  
IZAGIRRE**

**ELEKTRIZITATEA**

Goiz Argi etxea, 37  
Kalezar  
Telf: 943 36 50 95  
Mobila: 609068111



**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
**Zerbitzu ofiziala**

Zumartegi Poligonoa  
Aitzearra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92

**N • I**

**Ileapaindegia**

MISTOA

Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51



## Lehiaketa



## Non dago oroigarri hau?

Asmatzaileen artean Bordatxo tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



Erantzuna




Irabazlea

Onintze Kamino Landa

Saria

Patri tabernan bi pertsonentzat afaria

## LITERATURAREN TXOKOA



"Korapiloak" Jasone Osoro  
Bilduma: Literatura 208  
Orriak: 136

## Zer da lanbidez Jasone Osoro?

Jasone Osoro elgoibartarra kazetari eta gidoigilea da, hainbat komunikabidetan aritua, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak. Gaur egun telebistako "Sorginen laratza" eta "Hasiberriak" saioetan parte hartzen du eta zenbait egunkaritan zutabeak idazten ditu. Literaturaren alorrean "Tentazioak" izan zen bere lehenengo liburua, 1998an, egundoko arrakasta lortu zuena. "Isadora", Isadora Duncan dantzari ahaztezinaren biografia hain zuzen ere.

### Irabazleak:

Ez da asmatzailerik izan



*Zinkildegia*

Lentzeria, gizonaekoentzat arropa, haurren jantziak, etxerako behar dituzunak

Arizeta 1 behea, 20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

Iturgintza - Gasa - Berokuntza  
**J. Orbegozo**



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL



## MAIATZAK 18 ostirala

- Aitzaga elkarteak eta Zumarte musika eskolak udalaren laguntzaz antolatutako **kontzertua** gaueko 22.00etan hasita Oiaro kiroldegian: **Zumarte abesbatza, Tolosako orkestra eta Maezah hirukotea**. Sarrera: 500 pezeta.

## MAIATZAK 19 larunbata

- Plis, plas, txalo ta jolas egitarauaren barnean **ipuin antzeztuak Berbaro Elkartearen eskutik** Aginagan arratsaldeko 19.00etan. Ondoren **txokolatada**.

## MAIATZAK 20 igandea

- **Sagardo Eguna**.  
11.30etan **egunaren irekiera**. Goizean zehar trikitixa, gozogintza, bertsolariak balkoitik balkoira... Muztioa nola ateratzen den ere ikusi ahal izango da.  
12.30etan **sagardo botatzaille lehiaketa** frontoiko oholtzan.

15.00etan sagardo botatzaille eta lan egin duten guztien **bazkaria** Mahaspildegi elkartearen.

Arratsaldeko 17.30etan **herriko trikitilariak** frontoian.

**18.30etan Tapia eta Leturiarekin erromeria** frontoian.

## MAIATZAK 21 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

## MAIATZAK 26 larunbata

- Plis plas txalo ta jolas egitarauaren barnean **Telma taldearen "lehoi baten bila"** Santuenean 17.00etan hasita. Ondoren **txokolatada**.

## MAIATZAK 28 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

## OHARRAK

- ✍ **Bi pertsona behar dira Etxealdiako pisu bat alokatzeko** edo alokairuko beste pisu bat neska bat sartzeko. Interesatuak deitu 943 36 02 17 edo 669933626 telefonoetara. (Erduden eta Jaione)
- ✍ **Neska eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko**. Interesatuak deitu 943 36 43 11 telefonora.
- ✍ **Mahaspildegi elkartearen bazkide postua** salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✍ **Chow chow arrazako txakurrak salgai**. Pedigriarekin. Harremanetarako deitu 943 362072 telefonora.
- ✍ **Banaketarako furgoneta isoterma bat aukeran**. Lanerako aukerarekin ere saltzen da. Telf. 606060322.
- ✍ **Belar bolak egiteko belarra eskaintzen da** garbitze aldera Kalezarren. Interesatuak deitu 6306 47119 telefonora (Iñaki).

## XXV. Santixabel bertsopaper lehiaketa

### GAIA:

### "Herriko kontu zaharrak bertsotan"

1- Lehiaketa honetan parte hartzeko Usurbilgoa edo usurbildarra izan behar da.  
2- Lanak, 2001eko ekainaren 22a baino lehen honako helbide honetan utzi: Usurbilgo Udala. (XXV. Bertsopaper lehiaketa) Joxe Martin Enparantza. Usurbil 20170  
3- Lanek inoiz argitaratu gabek izan beharko dute.

4- Sariak honako hauek izango dira:  
5- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10.  
6- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz, Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak bidali.

## Goitibera santixabeletan

**Aurtengo Santixabel jaietan goitibera jeitsiera izango da Gazte egunean, uztailaren 3an.**

### Sariak:

1. 15.000 pezeta eta bi botela txanpan.
  2. 10.000 pezeta.
- Hasi, beraz, zuen goitiberak prestatzen!!**





etxe berri

# Aurtengo Sagardo Egunean ere ez hutsik egin urteroko Noaua!ko zitari

1996. urtea



1997. urtea



1998. urtea



1999. urtea



2000. urtea



Noiz:

Maiatzaren 20an, Sagardo Egunean, goizeko 11.00etan.

Non:

Eliza ondoko plazan

**A**urtengo Sagardo Egunean ere, urteroko ohiturari jarraituz, Eliza ondoko plazan zita dugu Noaua!ko bazkideok. 2001. urteko argazkia dugu aurtengoa, seigarren urtea, bera,z elkarrekin. Bost urte hauetan ez dugu nolana hiko ibilbidea egin. Izan ere, 500 bazkideko muga gainditua baitugu dagoeneko. Baina orain beste erronka bati heutsi behar diogu. Hau da, 600 bazkideko elkartea osatu behar dugu guztion artean. Beraz, badakizue! Utzi etxeke eginbeharrak, utzi Sagardo Eguneke prestaketak, utzi esku artean duzun guztia eta etorri bazkideen argazkia ateratzera. Ez hutsik egin!



## AGINAGA



Aginaga, Telf: 943 36 67 10  
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan

## Ondo pasa

Saga Sagardo Egu-

neguneari etan

redan ke niko -


sagardoa !!

## ILLUNBE



Txokoalde, Telf; 943 37 16 49  
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

iruin



Zubieta, Telf; 943 36 12 29  
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

## SAIZAR



Kalezar, Telf; 943 36 22 28  
Igande gauetan eta astelehen eguerdietan itxita.

## URDAIRA



Aginaga, Telf; 943 37 26 91  
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik.